**BAZTANGO UDALA**
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

## 2015eko MAIATZAren 21eko EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

## *SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 21 DE MAYO DE 2015*

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2015eko maiatzaren 21ean, 8:00etan, Baztango Udaleko Osoko Bilkura bildu da, ezohiko bileran, Garbiñe Elizegi Narbarte alkate-udalburu andrea buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Mª Teresa Oteiza Apecechea, Maitane Maritorena Azkarate eta Jon Elizetxe Bidegarai, BILDU taldekoak; Begoña Sanzberro Iturriria, Maria Carmen Iribarren Iribarren, Maria Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino eta Jose Mª Garmendia Arizmendi; UPN taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche, BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Maite J. Iturre Llano, NA-BAI (2011) taldekoa.

Idazkari lanetan, Iulen Urbiola Loiarte jauna aritu da.

Alkatearen aginduz, bilkura hasi da.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 8:00 horas del día 21 de mayo de 2015, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por la alcaldesa-presidenta Garbiñe Elizegi Narbarte, y con la asistencia de los siguientes concejales: Mikel Ortega Arraztoa, Mª Teresa Oteiza Apecechea, Maitane Maritorena Azkarate y Jon Elizetxe Bidegarai, del grupo BILDU; Begoña Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren, María Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino y José Mª Garmendia Arizmendi, del grupo UPN; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche, del grupo BAZTANGO EZKERRA; Maite J. Iturre Llano, grupo NA-BAI (2011).*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loiarte.*

*La alcaldesa da comienzo a la sesión.*

### 1.- BAZTAN-BIDASOA ESKUALDEAN TURISMOA GARATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, eman ondoren, Udalbatzak 8 aldeko botoekin eta 5 abstentzio honako hau **erabaki du:**

1.- Baztan-Bidasoa eskualdean turismoa garatzeko lankidetza hitzarmena, **onestea**.
2.- Alkatetzari **ahalmena** ematea erabaki hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia izenpetzeko.
3.- Erabaki hau interesatuei **helaraztea,** jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioetarako.

### *1.- CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA EL DESARROLLO TURÍSTICO DE LA COMARCA DE BAZTAN-BIDASOA.*

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, el Pleno por 8 votos a favor y 5 abstenciones **acuerda:***

*1.- **Aprobar** el contenido del convenio de colaboración para el desarrollo turístico de la comarca de Baztan-Bidasoa.*
*2.- **Facultar** a la Alcaldía para la firma de cuanta documentación fuera precisa suscribir en aplicación y desarrollo del presente acuerdo.*
*3.- **Notificar** el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efecto.*

### 2.- BLAS OTAZU LETRATUAREN ARAU DEONTOLOGIKOEN BALIZKO EZ-BETETZEARI DAGOKIONEZ, IRUÑEKO ABOKATUEN ELKARGOAREN AITZINEAN KEXA AURKEZTEA.

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz

### *2.- QUEJA ANTE EL COLEGIO DE ABOGADOS DE PAMPLONA EN RELACIÓN AL POSIBLE INCUMPLIMIENTO DEL LETRADO BLAS OTAZU DEL CÓDIGO DEONTOLÓGICO.*

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los*

bere iritzia, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoa, eman dute. Honela laburbiltzen da:

**Begona Sanzberrok, UPNkoak:** Nik ere kexa bat aurkeztu nahi dut. Biziki harritu gaitu Osoko bilkurara kexa hau ekarri izanak eta, aldiz, kexa sorrarazi duen gaitik deus ere ez ekartzeak. Kexa hau Almandozen dagoen gai batetik heldu da. Kontua da, argindar falta zegoela bizitegi multzo berri batean etxe batzuk egiteko. Auzo berria eskola eraiki eta ondoan egin behar izan zen, Udalak exekutaturik. Bere garaian oniritzia eman zitzaion, onartu zen eta, beraz, ulertzen da urbanizazio horrek zerbitzu guztiak bazituela, aski elektrifikazioa barne. Hor obra-baimenak eman dira, joan den legealdian eta honetan eta ezein momentutan, ezein hirigintza-batzordetan ez dugu horren gaineko berririk jaso eta jakitun izan. Orain bai. Blas Otazuren kexaren berri izan dugu. Guk Blas Otazuren kexaren kontra bozkatuko dugu, ez Blas Otazuren kexak bortz axola digulakoz, hor gertatzen ari denaren aitzinean gure kexa agertzeko baizik. Orain ez urbanizazio horren garapena, herri osoarena baizik legoke guztiz blokeaturik. Eta gainera, ez dugu deus ulertzen. Bere egunean urbanizazioa onartu zen, areto honetan obra horren onarpena, lurberzatitzea... onartu zuten zinegotziak badaude. Joan den legealdian eta honetan baimenak eman dira. Nik dudan galdera hau da: Udalak eman zuen azken baimena, arazoaren jakinaren gainean zegoelarik, zerbitzu guztiak bazituela uste zen urbanizazio batean, eman zuen jakinik argindar aski ez zegoela, zuzen ala oker naiz? Hemen honetaz gain arazo aski mamitsua dago, oro har Almandozko herriarendako eta bereziki baimena ordaindu duten eta beren etxea egin dutenendako, dirudienez horiek ezin izanen baitute hor bizi elektrifikazioaren arazoa baitago. Udalak burutu zuen urbanizazio batean erosi zuten eta dokumentazio guztia legez duen urbanizazioa da. Benetan, sinestezina.

**Garbiñe Elizegik, alkateak:** Hasteko hori ez da gaurko gaia. Gaurko gaia da hemen esan duguna. Zuk izan dituzu urteak Begoña, kezka bazenuen urbanizazio horrekin galdetzeko eta informatzeko. Eta lizentziak onartu badira Udal honetan ere, zuk baduzu horren berri zeren Tokiko Gobernu

*corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resume en,*

***Begoña Sanzberro, UPN:*** *Yo también quiero plantear una queja. Nos ha sorprendido mucho que se traiga esta queja contra Blas Otazu al Pleno, pero sin embargo no se haya traído al Pleno nada de la sustancia que origina esta queja. Esta queja viene al hilo de un tema que hay en Almandoz y con la falta de capacidad eléctrica para desarrollar, en concreto, en este momento, unas viviendas que se están haciendo en una urbanización, que se tuvo que hacer a resultas de la escuela, y una urbanización que ejecutó el Ayuntamiento, que en su día se le dio el visto bueno, se recibió y por lo tanto se entiende que esa urbanización tenía todos los servicios, incluido el de electricidad, ahí se han dado licencias de obra, tanto en la legislatura anterior como en esta, y en ningún momento en ninguna comisión de urbanismo no hemos tenido conocimiento ni participación de esto. Ahora sí, de la queja de Blas Otazu. Nosotros vamos a votar en contra de la queja de Blas Otazu, no porque nos importe un pimiento la queja de Blas Otazu, sino como queja de lo que allí está sucediendo. Porque en este momento además de esa urbanización el desarrollo del pueblo estaría absolutamente bloqueado. Y es que además no entendemos nada, en su día se recibe esa urbanización, incluso hay concejales en esta sala que aprobaron la recepción de esa urbanización, la reparcelación etc. Se han dado licencias en la legislatura anterior y en esta legislatura. Yo lo que me pregunto es, por ejemplo, la última licencia que se dio por parte del Ayuntamiento, a sabiendas del problema que había, y en una urbanización y se supone que tiene que tener todos los servicios y ya se sabía que no había la capacidad eléctrica, ¿es correcta o es incorrecta? Aquí, de verdad, mucho más que el tema de esto hay un problema sustancioso en concreto, para el pueblo de Almandoz en general y en concreto para algunos que han pagado su licencia, han construido su casa y ahora parece que no van a poder entrar porque tienen el tema de la electricidad y compraron una urbanización que en su día la desarrolló el Ayuntamiento y tiene toda la documentación en regla. Francamente inaudito.*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa:*** *Ahora repito en castellano: el tema de hoy no es la urbanización de*

Batzordetik onartzen dira eta aktak hor daude. Eta hori gaizki egin bada, zure ardura izango zen hori erratea behar den tokian. Gaurko gaia ez da hori, historia luzea da, zuk badakizu luzea dela, guk eman ditugun lizentziak eman ditugu kondizionatuak arazo hori zegoelakoz eta abal bat jarrarazi dugu aitzinekoek egin ez zuten bezala, bermatzeko urbanizazio hori, eztabaida juridikoa edo epaitegietan baldin badago, argitu eta gero bermatzeko hori egiten dela. Orduan zuk izan duzu aukera hori galdetzeko eta zuzentzeko, eta gaur hori ez da gaia. Gaia da hemen badagoela abokatu bat, ari dena modu ez egokian jokatzen, frogatu dugu lehen ere, eta zuek aitzakia bezala ez dakit zer, hori babestu nahi duzue. Bueno ba esan zergatik babestu nahi duzuen edo zergatik ez duzuen gaizki ikusten modu horretan jokatzea, agian zuendako normala delakoz, baina guretzat ez. Orduan ez dezagun orain gai batetik bertze bat atera. Izan duzu denbora gehiegi nahi bazenuen horri buruz galdetzeko eta informatzeko, eta herriak ere bai. Eta hemen gu egon gara horretan lanean azkeneko hiru urteak. Gauzak batzuetan konplikatzen dira. Baina ez da guk sortutako arazo bat, baizik eta zuek hemen egon zaretenean ere, beste legealdietan egindakoa. Gaur gaude Blas Otazurekin. Eta Blas Otazuk jokatu du modu batean, gure ustez araudiaren kontra, edo behinik behin etiko ez den moduan. Guk Udal bezala eskatzen dugu hori salatzea. Zuek ez duzuela salatu nahi? Ba oso ongi, baino ez zait iruditzen aitzakia urbanizazioaren inguruko eztabaida hori. Hemen badago jokatzeko modu bat, zuek babesten ahal duzue edo ez, guk ez dugu babesten eta gainera salatzen dugu.

**Isabel Olavek, UPNkoak:** Izan dugu izan dugun denbora eta jakin dugu jakin izan duguna zuek hala jakinarazi diguzuelakoz. Zuek 2014ko apiriletik bazenekiten hau gertatzen ari zela.

**Garbiñe Elizegik, alkateak:** Aski Isabel, ez zara gaiarekin ari, ez duzue hitz egin nahi etikari buruz ados zaudetelakoz jokatzeko modu horrekin. Eta ez gara sartuko gehiago Almandozekin. Ez dago gehiago, ez baduzue gauza berririk erran behar, ez baduzue eztabaidatu behar gaia, bukatzen da ronda. Bertze norbaitek badu zerbait erratekorik gai honen inguruan? Hau da, kexaren inguruan eta ez Almandozen gertatu denaren inguruan. Zertaz zu egon zara Almandozen eta herri guziak baldin bazekien, ez dakit nola erraten duzun orain ez duzula informaziorik.

*Almandoz, el tema de hoy es Blas Otazu y cómo está actuando con este Ayuntamiento. Has tenido tiempo más que suficiente en esta legislatura y en la anterior si querías aclarar el tema de Almandoz, y para preguntar, porque las licencias de obra se han dado a través de la Junta de Gobierno Local. Tenéis las actas y no habéis dicho nada hasta hoy. Queréis justificar de esta manera qué os parece bien o qué os parece mal, vamos a decirlo, la actuación de Blas Otazu, o a vosotros os parece normal. Aquí lo que vamos a discutir hoy es la actuación de Blas Otazu con este Ayuntamiento, que a nosotros no nos parece aceptable, no nos parece ético, y lo vamos a denunciar. Porque la última vez también dijisteis que estamos aquí acusando de no se qué, y resulta que luego nos ha dado la razón el colegio y el colegio estatal también. Por lo tanto aquí lo que se plantea es la ética profesional de una persona que está actuando a sueldo de este Ayuntamiento. Ese es el debate.*

***Isabel Olave, UPN:** Tiempo hemos tenido el que hemos tenido, el que nos habéis proporcionado. Vosotros sabéis que esto está pasando, desde antes de abril de 2014.*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa:** Isabel te voy a cortar. No estás hablando del tema que toca. No queréis hablar de ética porque estáis a favor de ese modo de actuar. No es el tema de debate la urbanización de Almandoz. No hay más, si no vais a decir nada nuevo, si no vais a entrar en el tema se acaba la ronda. ¿Alguien tiene algo que decir sobre este tema? Sobre la queja y no sobre lo sucedido en Almandoz. Porque si tú has estado en Almandoz y todo el pueblo sabía lo que ocurría no sé cómo dices ahora que no tienes información.*

**Isabel Olavek, UPNkoak**: Noski Otazuren gainean mintzatuko garela. Gai honetan esku hartzen ari diren jurista guztien gainean eginen dugu solas. Orduan zuen kexa Otazuren gainean bada, gurea Joxe Abaurrearen gainekoa da, 2014ko apirilean txosten bat sinatu baitzuen erranez Iberdrolarekin arazo bat zegoela eta Almandozek ezin zuela Iberdrolarekin hornidurarik eta hargune gehiagorik izan Iberdrolak ez baititu hargune horiek baimentzen. Zuek, ez guk, txosten hori izanda, hilabete geroago Almandozko etxebizitza baterako baimena onartu duzue. Ea nork izan duen hemen denbora gauzak konpontzeko eta nork izan duen informazioa. Guk bederen, informazioa izan dugun momentutik kuestionatzen hasi gara baina ez zaigu ematen aukera egiteko. Hau azken Osoko bilkura da, gaia mahai gainean izanen dugun azken aukera. Ez erran niri denbora izan duzuela eta, bertze aldetik, egoera, gutxienez arazotsua eta aski larritzekoa dena, argitzeko dugun aukera guri kendu. Informazioa zuek duzue, ez guk. Informazioa idatzita dago, txosten juridikoa duzue eta txosten juridiko hori eskuetan izanda baimenak ematen segitu duzu. Eta txosten juridiko hori mahai gainean zegoela segitu dute Almandozen etxebizitza berriak eraikitzeko proposamenak hirigintza batzordera ekartzen. Beraz, ez dezagun eztabaidatu denbora nork izan duen. Denbora izan duena zeu izan zara eta jokatu duzun moduan jokatu duzu.

**Begoña Sanzberrok, UPNkoak**: Ematen datazu hitza edo ez datazu ematen?

**Garbiñe Elizegik, alkateak**: Ez, ez dizut ematen. Ez baduzu solastu behar gai honi buruz eta ez baduzu kexa honi buruz solastu behar, ez.

**Begoña Sanzberrok, UPNkoak**: Bai, kexa honi buruz.

**Garbiñe Elizegik, alkalteak**: Bada minutu bat duzu.

**Begoña Sanzberrok, UPNkoak**: Pues esker mile anitz minutu horrengatik. Blas Otazuk udalbatza honetako zenbait kiderekin duen bateraezingarritasun bera. Haien kontra joko dugu edo zer?

**Garbiñe Elizegik, alkalteak**: Zertan?

**Begoña Sanzberrok, UPNkoak**: Hasmentan erran dizut. Agian ez didazu aditu. Hemen erabat kontraesankorrak diren jarduketak ditugu. Hemen urbanizazioak onartu dira, urbanizazio lanak onartu dira ontzat emanda eta orain ekintza beraren kontra auzia planteatzen ari da. Zer

***Isabel Olave, UPN**: Claro que vamos a hablar de Otazu. Vamos a hablar de todos aquellos juristas que están interviniendo en este asunto. Entonces si vuestra queja es sobre Otazu, lo que queremos explicar es que la nuestra también es sobre Joxe Abaurrea, que firma un informe de 14 de abril del 2014, diciendo que hay un problema con Iberdrola y que Almandoz no puede tener suministro y más enganches a Iberdrola porque Iberdrola no permite esos enganches. Teniendo vosotros este informe, teniéndolo vosotros, no nosotros, tres meses después habéis vuelto a aprobar una licencia para una vivienda en Almandoz. A ver quién ha tenido tiempo aquí de resolver las cosas y quién ha tenido la información. Porque desde luego nosotros en cuanto la hemos tenido hemos empezado a cuestionarla. Por otra parte, no se nos está permitiendo hacerlo. Este es el último Pleno, es la última oportunidad que vamos a tener de casar este tema encima de la mesa. No me digas que habéis tenido tiempo y por otra parte nos cortes la posibilidad de que hoy aclaremos esta situación, como mínimo confusa y bastante preocupante. La información la teníais vosotros, no nosotros. La información está por escrito, tienes un informe jurídico. Y con ese informe jurídico has continuado concediendo licencias. Y con ese informe jurídico encima de la mesa han continuado trayendo propuestas a la comisión de urbanismo de nuevas edificaciones en Almandoz. Así que no hablemos de quién ha tenido tiempo, porque la que ha tenido tiempo has sido tú y has actuado como has actuado.*

***Begoña Sanzberro, UPN**: ¿Me das la palabra o no me la das?*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa**: No, no te la doy. Si no vas a hablar sobre este asunto, sobre esta queja, no.*

***Begoña Sanzberro, UPN**: Sí, sobre esta queja.*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa**: Pues tienes un minuto.*

***Begoña Sanzberro, UPN**: Pues muchas gracias por el minuto. La misma incompatibilidad de Blas Otazu con miembros de esta corporación, ¿vamos a actuar también contra ellos o qué?*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa**: ¿En qué?*

***Begoña Sanzberro, UPN**: Pues ya te lo he dicho al principio. A lo mejor es que no me has escuchado. Aquí hay actuaciones absolutamente contradictorias. Aquí se han aprobado urbanizaciones, se han aprobado recepciones de una urbanización dando por buena y ahora se está planteando un contencioso contra el mismo acto.*

gertatzen da, hor ez dagoela batera-ezingarritasunik? Edo guztien kontra eginen dugu? Kontua da guk ez dugula sáltsa hau hasi.

**Garbiñe Elizegik, alkateak**: Egitan Begoña, ez dizula funtzionatzen jada joko horrek. Harria bota eta eskua gorde. Baldin baduzue norbait denuntziatzeko denuntziatu, eta ez ibili harria botatzen eta eskua gordetzen. Eta gero erraten gauzak ez direnak. Baldin baduzue norbait denuntziatzeko denuntziatu. Guk paratu dugu mahai gainean eta hemen dago Otazuren kexa eta hau egin behar dugu. Zuek egon zarete hamabost minutuz solasean eta ez duzue aipatu hemen zer gertatzen ari den, hau ongi iruditzen zaizuen edo ez. Orduan hau da bozkatu behar duguna bertzerik ez baldin bada.

*¿Qué pasa, que no hay incompatibilidad ahí? ¿O vamos a actuar contra todos? Que es que no hemos empezado nosotros esta juerga.*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa:*** *De verdad, Begoña, que ya no te funciona ese juego de tirar la piedra y esconder la mano. Si tenéis que denunciar a alguien denunciarlo y no andéis tirando la piedra y escondiendo la mano. Y luego diciendo cosas que no son. Si tenéis a alguien a quien denunciar, hacedlo. Nosotros hemos puesto sobre la mesa la queja de Otazu y vamos a hacer esto. Vosotros habéis estado hablando quince minutos y no habéis dicho qué está pasando aquí, si esto os parece bien o no. Entonces, si no hay nada más, esto es lo que vamos a votar.*

Udalbatzak aldeko 8 boto eta kontrako 5 emanik, honako hau onartu du: Blas Otazu letratuaren arau deontologikoen balizko ez-betetzeari dagokionez Iruñeko Abokatuen Elkargo Txit Prestuari **kexa helaraztea,** jakinaren gainean egon dadin eta sortzen diren ondorioetarako.

*El Pleno por 8 votos a favor y 5 votos en contra, acuerda* ***trasladar la queja*** *en relación al posible incumplimiento del letrado Blas Otazu del código deontológico al Muy Ilustre Colegio de Abogados, para su conocimiento y efectos.*

**PREMIAZKOA**

6/1990 Foru Legearen 81.1 artikuluaren arabera ezohiko bilkurako gai-zerrendari premiaz gai bat gehitzea udal-batzarkide guztiek bertan izan behar dute eta guztiek aho batez erabaki behar dute.

Udalbatza osatzen duten zinegotziek aho batez onartu dute ondoko gaiak gehitzea:

A.- Egiturazko aldaketa puntuala Baztango Udal Planean. Gartzaingo 65. poligonoko 99. lursaila, Andalorrea ENS.

B.- Esteribarren eta Baztanen Arteko Muga Zedarritzeko Batzordea. 2. desadostasun Akta.

***URGENCIA***

*Para incluir un asunto de urgencia en el orden del día de una sesión extraordinaria, de conformidad con lo establecido en el art 81.1 Ley Foral 6/1990 deben estar presentes todos los miembros de la corporación y así lo acuerden por unanimidad.*

*Los concejales que conforman la Corporación Municipal acuerdan por unanimidad incluir los siguientes asuntos:*

*A.- Modificación puntual estructurante del Plan Municipal de Baztan. Parcela 99 del polígono 65, Gartzain. SAT Andalorrea.*

*B.- Comisión de Delimitación entre Esteribar y Baztan. 2ª Acta de disconformidad.*

**A.- EGITURAZKO ALDAKETA PUNTUALA BAZTANGO UDAL PLANEAN. GARTZAINGO 65 POLIGONOKO 99 LURSAILA. ANDALORREA ENS.**

2015/02/23an Jose Mari Mariñelarena Saralegui jaunak Andalorrea ENSen (Eraldaketarako Nekazaritza-Sozietatearen) izenean Gartzaingo 65. poligonoko 99. lursailean Udal Plan Orokorraren egiturazko aldaketa Udalean aurkeztu zuen. 2015/03/09an egindako ezohiko saioan aldeko 7 boto eta aurkako 4 boto emanik, aldaketa hasiera batez onetsi zen eta 2015/04/20ko 74. Nafarroako Aldizkari

***A.- MODIFICACIÓN PUNTUAL ESTRUCTURANTE DEL PLAN MUNICIPAL DE BAZTAN. PARCELA 99 DEL POLÍGONO 65, GARTZAIN. SAT ANDALORREA.***

*Con fecha 23/02/2015 Don José Mari Mariñelarena Saralegui, en nombre de SAT ANDALORREA, presentó ante el Ayuntamiento de Baztan solicitud de modificación del Plan Municipal de Baztan en lo que respecta a la parcela 99 del polígono 65 de Baztan. En sesión extraordinaria de 9/03/2015 se aprobó por 7 votos a favor y 4 votos en contra y con carácter inicial la modificación del Plan Municipal de Baztan en lo que respecta a la parcela 99 del polígono 65 de*

Ofizialean iragarri zen. Jendaurreko epea alegaziorik gabe behin pasatuz gero eta Nafarroako Gobernuko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuaren aldeko txostenak izanik, Udalbatzak aldeko 7 boto eta 6 abstentzio emanik, honako hau **erabaki du:**

1.- **Behin behinekoz onestea** Udal Plan Orokorreko aldaketa hirigintzako egiturazko determinazioetan, Gartzaingo 65. poligonoko 99. lursailari dagokiona, administrazio publiko interesdunen txostenek, hala balegokie, ezartzen dituzten ondoriozko aldaketekin.

2.- Espediente osoa Nafarroako Foru Administrazioari **igortzea,** behin betiko onets dezan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 79.2.c) eta 70.10. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

3.- Erabaki hau interesdunei **jakinaraztea,** zein errekurtso jar dezaketen aditzera emanez.

*Baztan, promovida por SAT Andalorrea. Con fecha 20/04/2015 la aprobación inicial fue publicada en el Boletín Oficial de Navarra nº 74. Pasado el periodo de exposición pública sin que se hayan presentado alegaciones y recibidos los informes favorables del Servicio de Calidad Ambiental y del Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el Pleno por 7 votos a favor y 6 abstenciones **acuerda:***

*1.- **Aprobar provisionalmente** la modificación de determinaciones urbanísticas estructurantes del Plan General Municipal de la parcela 99 del polígono 65 de Gartzain con las modificaciones resultantes, en su caso, de los informes emitidos por las Administraciones Públicas interesadas.*

*2.- **Remitir** el expediente completo a la Administración Foral de Navarra para su aprobación definitiva, conforme a lo dispuesto en los artículos 79.2.c) y 70.10 de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

*3.- **Notificar** este acuerdo a los interesados, con ofrecimiento de los recursos que sean procedentes.*

**B.- ESTERIBARREN ETA BAZTANEN ARTEKO MUGA ZEDARRITZEKO BATZORDEA. 2. DESADOSTASUN AKTA.**

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, emanik, Udalbatzak aho batez honako hau **onartu du:**

1.- Esteribarren eta Baztanen arteko Muga Zedarritzeko batzordearen bigarren desadostasun aktaren edukiak **onestea.**

2.- Akta eta hari atxikirik doan dokumentazioa Nafarroako Gobernuari **igortzea,** jakinaren gainean izateko eta beharrezkoak diren ondorioetako.

***B.- COMISIÓN DE DELIMITACIÓN ENTRE ESTERIBAR Y BAZTAN. 2ª ACTA DE DISCONFORMIDAD.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, el Pleno por unanimidad **acuerda:***

*1.- **Aprobar** el contenido de la segunda acta de disconformidad elevada por la Comisión de Delimitación entre Baztan y Esteribar.*

*2.- **Remitir** el acta junto con la documentación adjunta al Gobierno de Navarra, para su conocimiento y efectos.*

Jarraian alkate-udalburu andreak bilkura amaitutzat eman du 8:30ean. Idazkari gisa horren guztiaren fede ematen dut.

*Seguidamente, por la Sra. alcaldesa-presidenta se levanta la sesión, siendo las 8:30 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.*

ALKATEA
*LA ALCALDESA*

IDAZKARIA
*EL SECRETARIO*

BAZTAN
Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan